

## SARRERA

Europako SALTO proiektua -Social Action for Life quality training and Tools- laguntza behar duten adineko eta aniztasun funtzionala duten pertsonen erantzuteko profesionalak duten egokitze beharrean oinarritzen da, Alzheimer gaixotasuna, autismoaren espektroko gaitzak edo nahaste psikiatrikoak dituztenei bereziki.

SALTO proiektuaren helburua pertsona horien behar psikosozialei erantzutea da, ematen zaizkien zaintzak eta tratamenduak osatuz. Beraien bizi-kalitatea hobetu nahi da disziplina anitzetan oinarritutako ikuspegi terapeutiko batetik, eta, horri esker, trebetasun fisikoak, psikologikoak, kognitiboak eta sozialak zaintzea eta garatzea.

## HELBURUA

Laguntza behar duten adineko eta aniztasun funtzionala duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea:

- ▲ Arreta sustatuz eta ikuspegi alternatiboak erabiliz
- ▲ Gizarte-ekintza ikuspegi terapeutikoaren barruan kokatuz
- ▲ Trebetasun fisikoak, psikologikoak, kognitiboak eta sozialak garatuz

## METODOLOGIA

1. Ikerketa-ekintza proiektu bat da, formakuntza- eta lan- zentroek elkarlanean garatua, egiten ari diren praktiken azterketan eta berrikuntzan oinarrituta

2. Parte hartzeko proiektu bat da. Lurralde bakoitzean eragile ezberdinek, erakunde publikoek eta zentro soziosanitarioek parte hartzen dute profesionalak eta erabiltzaileek dituzten beharrei moldatutako erantzuna emateko, dauden politika publikoak kontuan izanik.

3. Euroeskualdeen dinamikan oinarritutako proiektu bat da:

- Akitania Berria – Euskadi Euroeskualdea, Gipuzkoako (Espainia) eta Landetako eta Pirinio Atlantikoetako (Frantzia) partaideekin.

- Adriatikoa Euroeskualdea, Istria-ko (Kroazia), eta Emilia Romagna-ko eta Venezia-ko (Italia) partaideekin.

## EMAITZAK

1. Gizarte animazioaren formakuntza eta esperientzia onei buruzko informazioa jaso, bertan nahiz Europa mailan.

2. Formakuntza modularrean garatzeko Gizarte Ekintzako programa bat sortu, arlo honetako profesionalak eta erakundeak egokitua, disziplina anitzeko ikuspegia eta ekintza soziala terapia alternatibo moduan bultzatzen dituen

4.- Osasun- eta gizarte- profesionalentzako Gizarte Ekintzarako gidaliburua, gaitasun fisikoak, psikologikoak, kognitiboak eta sozialak zaintzeko eta garatzeko teknikak eta jarduerak zehaztuz.

## LURRALDEAK

4 lurraldeak: Frantzia, Espainia, Italia eta Kroazia

2 Euroeskualdeak: Akitania Berria-Euskadi eta Adriatikoa

10 kideak:

- Osasun- eta gizarte- formakuntza eskeintzen duten 4 zentro.
- Unibertsitate 1.
- Adineko pertsonen arreta emateko 2 erakunde
- Ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko 3 erakunde.

## OINARRIZKO KONTZEPTUAK

1. Gizarte Ekintzaren barruan, pertsonen trebetasun fisikoak, kognitiboak, psikologikoak eta sozialak garatzeko eskuhartzeak, proiektuak eta jarduerak sartzen dira, autonomia handiagoa eta gizarte-harremanak sustatuz.

2. Bizi-kalitatea ongizate moduan ulertua: Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, pertsonaren osasun fisikoa, egoera psikologikoa, autonomia maila, gizarte harremanak, sinismenak eta bere ingurunearen espezifikoak diren ezaugarriekiko bere erlazioa barne direla.

## PROIEKTUAREN FASEAK

2016ko urria – 2017ko apirila:

praktika onen ebaluaketa

2017ko maiatza - 2019ko uztaila:

formakuntza prestatzea

2018ko martxoa - 2018ko abendua:

formakuntza baliozkotzea

2017ko maiatza - 2018ko abendua:

gidaliburu teknikoak

## PARTAIDEAK

### Frantzia



ETCHARRY FORMATION DEVELOPPEMENT  
Garapen Sozialerako Erakundea  
Euskadi eta Landak - Akitania Berria  
[www.etcharry-entrenamiento- développement.fr](http://www.etcharry-entrenamiento- développement.fr)



CAMINANTE  
Osasun- eta gizarte- ekintzarako elkarte  
Pirinio Atlantikoak eta Landak-Akitania Berria  
[www.asso-caminante.fr](http://www.asso-caminante.fr)



AAPAVA  
Mendekotasuna duten adineko pertsoentzako  
harrera-etxeak kudeatzen dituen elkarte  
Euskadi - Akitania Berria

### Espainia



MATIA FUNDAZIOA  
Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako  
harrera-etxeak kudeatzen dituen erakundea  
Gipuzkoa - Euskadi  
[www.matiafundazioa.net](http://www.matiafundazioa.net)



PIFC Gizarte Berrikuntzako LHII  
Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako ikastetxe  
integratua  
Gipuzkoa - Euskadi  
[www.hernanilanh.hezkuntza.net](http://www.hernanilanh.hezkuntza.net)

### Italia



CEFAL EMILIA ROMAGNA  
Gizarte Lanerako eta laguntza sozioprofesionalerako  
Formakuntza Zentroa  
Bologna - Emilia Romagna  
[www.cefal.it](http://www.cefal.it)



UNIVERSITÀ DI BOLOGNA  
Hezkuntza Zientzien Saila - Giovanni Maria Bertin  
Bologna - Emilia Romagna  
[www.unibo.it](http://www.unibo.it)



ASSOCIAZIONE C'ENTRO  
Osasun- eta gizarte- ekintzarako erakundea  
Venecia-Veneto  
[www.associazionecentro.it](http://www.associazionecentro.it)

### Kroazia



DOM ZA ODRASLE OSOBE VILA MARIA  
Ezgaritasuna duten helduentzako harrera-zentroa  
Pula - Istria  
[www.dom-vilamaria.hr](http://www.dom-vilamaria.hr)



DIOPTER - OTVORENO UČILIŠTE  
Osasun- eta gizarte- Lanbide Heziketako Zentroa  
Pula - Istria  
[www.diopter.hr](http://www.diopter.hr)

**SALIC**  
Social Action for Life quality  
training and TOols

LAGUNTZA BEHAR DUTEN  
**ADINEKO ETA**  
ANIZTASUN FUNTZIONALA  
DUTEN PERTSONEN  
**BIZI-KALITATEA**  
**HOBETZEKO**  
**GIZARTE-EKINTZA**



Erasmus+



**SALIC**

Social Action for Life quality  
training and TOols